

Coloradoko hamalaumiletan

Ana Piñel



Ana bere lehenengo laumilakoan

mendizalearen etxean eta baita hurrengo goiza ere, gauzak prestatzen, mapak bilatzen eta, nola ez, Eveliorekin hitzegiten. Denborarik ez genuen soberan, beraz, bazkaldu ondoren kotxean sartu eta freeway'ean zehar Leadvillerantz abiatu ginen.

Leadville (3.020 m) haran zabal batean kokaturik dago. Harana oso lau eta luzea da eta bi aldeetara izugarritzko mendilerroak ditu.

ESTATU Batuetan ia aste bat pasatu genuen. Denver'era gabaz heldu ginen baina bazegoen jadanik Mexikoko mugara eramango ginduen kotxe alokatua gure zai. Gau hura Fort Collins'en eman genuen, Evelio Echevarria

Elbert Coloradoko sapaia da eta Estatu Batu guztietako, Alaska ezik, bigarren mendi altuena

Elbert (4.379)

Arratsalde hartan, kotxean geundelarik, mendietan geroz eta elur gehiago ikustera-koan, Elbertera ezin izango genukeela igo pentsatzen hasi ginen eta, hara, Leadvillera heldu ginenean eta bi mendilerroak elurrez beteta ikusi, Elbert'a hurrinetik ikustearekin konformatu beharko genuela ia erabakia zegoen.

Hurrengo goizeko zortziretan motelaren kanpoan zegoen termometroak 0°C markatzen zituen; pasada osoz hasi ginen gosaltzen logelan, mapa eta liburuaren artean, egun hartan igo genezakeen beste gailur baten bila. Orduan, dena erabakia zegoenean eta irtetzeko prest geundenean, Tito'k proposamen bat botu zuen: "Goazen, behintzat, Elbert'a hurbilagotik ikustera, ez gabiltza hain berandu..." "Egia da. Goazen ba!"

Hurbilduz eta hurbilduz, azkenean bidezidorra hasten zen lekura heldu ginen. Eta, hara non, gizon bat Elbert'era igotzeko prestatzen ari zen hantxe bertan. Berak zeraman ekipoa ez zen gurea baino askoz konpletuagoa. Berehala joan zen Txomin harengana ahal zuen beste informazio atertzeko asmoarekin eta segituan bueltatu zen: "Jar itzazue botak, badirudi posible dela gailurrera heltzea!". Beraz, botak jantzi, janaria eta ura banatu eta pinu artean ibiltzen hasi ginen.

Bi ordu t'erdi beranduago elurra zapaltzen ari ginen. Handik aurrera, harriak, elurra eta haize geroz eta indartsuagoa. Eta zelako hotza! Gailurrera hurbiltzen ari ginen heinean eguraldia txarragotzen zihoan; nere lehenengo "laumila" zen baina bajatzeko nuen gogoarekin ez nintzen hortaz ezta konturatu ere egin puntan.

Redcloud (4.277)

Redcloud'eko gailurra zapaltzerakoan, sentsazioa guztiz ezberdina izan zen. Eguraldia ezin hobea zen eta puntatik, nahiz alde batera nahiz bestera begiratu elurrez beteriko gailurrak ikusten ziren. Neretzako, Mont Blanc'ean egotea bezelaxe xen hura.

Igoerari buruz, nahiago ez hitzegitea. Haseran bai, bazegoen bidexka bat, gainera, Mary Lee'ren spaghettiak afaldu eta pancake'ak gosaldutik ondoren energiak soberan genituen. Baina bidea desagertu zenean (hobeto esan, desagertarazi "genuenean", ez zeukan aldapa nahikorik eta...) igoera inoiz egin dudana astunena izan zen. Bi pausu aurrera, bat atzera, edo, hobeto esanda, behera, zeren eta hantxe zegoen amildegiarekin...! Behin baino gehiagotan, laban egin ondoren, dardarka, paretara itsatsita gelditu nintzen dardar haiekin jarraitu eta jauzteko beldurrekin.



Beraz, gailurreko poztasuna ez zen bakarrik paisaiarengaitik!

Wheeler (4.011)

Nuevo Mexikoko gailurrik altuena (Wheeler'a) igotzeko obligazioa sentitzen genuen nolabait Coloradokoa eginda bait zegoen. Baina ez zen posible izan. Igoeraren lehen parte berehala egin genuen prisira pixka batekin genbiltzan eta. Denbora guztian zehar haizea entzuten genuen, baina basoari esker babesturik geunden.

Basoa bukatu eta haizea bultzaka hasi zitzaigun, generaman norabidearekin baita lagundu ere egiten zigularik. Zuhaitzez babesturiko leku batetara heldu ginen eta zezoz jan ondoren arropa guztiak ondo jantzi genituen, eskularruak barne bideak jarraitzen zueneko norabidean haizea galanta zela bait zirudien; zuhaitzak laga eta haizea frontean genuen. Metro batzutura zutoin bat zegoen eta haruntz abiatu ginen haizearen kontra borrokatzen. Azkenean, itzelezko ahalegina egin ondoren, zutoinera heldu eta farre artean argazki batzu atera genituen. Buelta eman eta ordu pare batean kotxera heldu eta El Pasora hurbiltzen hasi ginen. □

FICHA TECNICA

Participantes

Excursión realizada del 1 al 4 de octubre de 1995 por TITO ARREGUI, ANTON PIÑEL, TXOMIN URIARTE Y ANA PIÑEL.

Bibliografía

Ver artículo: ECHEVARRIA E "Las Montañas Rocosas de Colorado" en **Pyrenaica** # 153 (1988), pp. 168 a 173.

BORNEMAN W and LAMPERT L "A climbing guide to Colorado's Fourteeners", Pruett, 2.ª edición 1989 (es el clásico indispensable para los 54 catorcemiles de Colorado).



"Guide to the Colorado Mountains" Randy Jacobs Ed. 9.ª edición, CMC 1992.

UGNADE H "Guide to the New Mexico Mountains"

Mapa del Elbert

"Leadville" Geological Survey 1983 (E 100m).

*Redcloud'etik
jeistean zuhaitz
mota
ezberdinez
josita dagoen
baso batean
sartzen gara*



Argazkia: Txomin Uriarte

RESUMEN

En los catorcemiles de Colorado

EN el viaje por Estados Unidos, yendo hacia la Barranca del Cobre, y después de visitar a Evelio Echevarría, Ana cuenta la experiencia de sus primeros cuatromiles (que en este caso son catorcemiles, conta-

dos en pies): el Elbert, techo de Colorado, y el Redcloud, en la cordillera de San Juan. Termina explicando cómo el viento impidió llegar a la cima del Wheeler, el techo de New Mexico, desde la estación de esquí de Twining.